

EUSKADIKO 2021-2027
LEHENTASUNEN EKINTZA-
ESPARRUA ETA NATURA 2000
SAREAREN FINANTZAKETA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Ingurune naturala

EUSKADIKO 2021-2027 LEHENTASUNEN EKINTZA-ESPARRUA ETA NATURA 2000 SAREAREN FINANTZAKETA

Ingurune naturala

Data

2020ko apirila

Jabea

Eusko Jaurlaritza.



 **euskadi.eus**

www.euskadi.eus/natura

Edukia

o. Egikaritze-laburpena	3
1. Natura 2000 Sarea Euskadin	5
A. Natura 2000 Sarea	5
B. Natura 2000 Sarea Euskadin.....	6
C. Natura 2000 Sarearen kudeaketa	8
D. Kudeaketa-tresnak eta -neurriak	10
E. Ekosistema multzo nagusiak.....	11
E.2.1. Itsasoko eta itsasertzeko urak	11
E.2.2. Txilardiak eta sastrakadiak	11
E.2.3. Zohikaztegiak, eremu zingiratsuak eta bestelako hezeguneak	12
E.2.4. Belar-formazioak	12
E.2.5. Bestelako agroekosistemak (laboreak barne)	12
E.2.6. Basoak eta baso-azalerak	12
E.2.7. Harkaitz-habitatak, dunak eta landaredi-estaldura urriko lursailak	13
E.2.8. Ur-habitat kontinentalak (ibaiak eta lakuak).....	13
E.2.9. Beste batzuk (haitzuloak, eta abar)	13
F. Natura 2000 Sarearen etekin ekonomikoak	13
2. Lehentasuneko Ekintza Esparrua	15
3. Euskadiko Natura 2000 Sarearen finantzaketa-iturriak	17
A. Europako funtsak.....	17
A.1. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (LGENF)	17
A.2. Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF)	17
A.3. Itsas eta Arrantzako Europako Funtsa (IAEF).....	18
A.4. Europako Lurralde Lankidetzeta (INTERREG).....	18
A.5. Europako Gizarte Funtsa (EGF).....	19
A.6. LIFE programa	19
B. Estatuko funtsak.....	19
C. Eskualdeko funtsak	19
D. Foru-funtsak	20
E. Beste erakunde batzuetako funtsak	20
4. Euskadiko Natura 2000 Sarearen finantzaketa eta egungo kostua	21
A. Europako funtsak.....	22
A.1. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (LGENF)	22
A.2. Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF)	23



A.3. Itsas eta Arrantzako Europako Funtsa (IAEF)	23
A.4. LIFE programa	24
A.5. Europako Lurralde Lankidetzeta (INTERREG)	25
A.6. Europako bestelako funtsak	26
B. Estatuko funtsak	26
C. Eskualdeko funtsak	27
D. Foru-funtsak	27
E. Beste erakunde batzuetako funtsak	27
5. Euskadiko 2021-2027 aldiko Lehenetasuneko Ekintza Esparrua	31
A. Neurri horizontalak eta administrazio-kostuak, Natura 2000 Sareari dagokionez.....	31
A.1. Espazioen izendapena eta kudeaketaren plangintza	31
A.2. Espazioen administrazioa eta agente interesduneko komunikazioa	31
A.3. Jarraipena eta informazioa	32
A.4. Ezagutza- eta ikerketa-beharrak.....	32
A.5. Natura 2000 Sareari buruzko komunikazio- eta kontzientziazio-neurriak, hezkuntza eta bisitarien sarrera.....	33
B. Tokiarekin lotzen diren mantentze- eta leheneratze-neurriak, Natura 2000 Sarearen barruan eta kanpoan.....	33
B.1. Kostaldeko eta itsasoko urak	33
B.2. Txilardiak eta sastrakadiak	34
B.3. Zohikaztegiak, eremu zingiratsuak eta bestelako hezeguneak.....	35
B.4. Belar-formazioak	35
B.5. Bestelako agroekosistemak (laboreak barne)	36
B.6. Basoak eta bestelako zuhaitz-formazioak.....	37
B.7. Harkaitz-habitata, dunak eta landaredi-estaldura urriko lursailak	37
B.8. Ur-habitat kontinentalak (ibaiak eta lakuak)	38
B.9. Beste batzuk (haitzuloak, eta abar).....	39
C. Ekosistema eta habitat espezifikoekin lotzen ez diren espezieentzako neurri gehigarri espezifikoak.....	39
C.1. Beste atal batzuetan barnean hartzen ez diren espezieentzako eta programetarako neurri espezifikoak.....	39
C.2. Espezie babestuek eragindako kalteak saihestea, arintzea edo konpentsatzea	40
D. Eraitzen laburpena.....	40
E. Kopuru horiek, handiak ala txikiak dira?	46

0. Egikaritze-laburpena

Natura 2000 Sarea da Europar Batasuneko natura kontserbatzeko tresna nagusia. Sare horretan 27.000 espazio babestu baino gehiago biltzen dira, eta guztira miloi bat kilometro karratutik gorako azalera hartzen dute (138 aldiz Euskal Autonomia Erkidegoko azalera). Euskal Autonomia Erkidegoan 1.504 km² sartzen dira Sare horren barruan, lurraldearen % 20,8.

Espazio babestuen sare erraldoi hori kudeatzeaz arduratuko dira Europar Batasuneko Estatuak eta haien eskualdeak. Europar Batasuneko aurrekontuetan ez da partida espezifikorik esleitzen Sarearen kudeaketan sortzen diren gastuei aurre egiteko, nahiz eta erakunde kudeatzaileek zenbait funts eta finantza-tresna balia ditzaketen kontserbazio- eta lehengoratzeko-ekintzak lagunduta finantzatzeko.

Programazio-aldi bakoitzaren aurretik (egungoa 2014-2020 aldia da), Europar Batasunak dokumentu tekniko bat prestatzen du, Lehentasuneko Ekintza Esparrua deritzana, Natura 2000 Sareak Europar Batasunaren mailan zer premia ekonomiko duen jakiteko. 2019. urtean, 2021-2027 aldirako Lehentasuneko Ekintza Esparrua (LEE) prestatu zen. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza arduratzen da Lehentasuneko Ekintza Esparrua lantzeaz, eta honako dokumentu hau Euskal Autonomia Erkidegoko LEEaren laburpena da.

LEEak zenbatesten duenez, 2014-2020 aldian, Euskal Autonomia Erkidegoak Natura 2000 Sareara zuzenean zuzendu zuen gastu publikoa 128 miloi eurokoa izan zen, eta 2021-2027 aldirako oso antzeko zenbatekoa izango da, 119 miloi inguru.

Gastuaren % 56 Foru Aldundiei zegokien, % 13 Eusko Jaurlaritzari, % 5 Administrazio Zentralari eta % 26 beste erakunde batzuei —horien artean Uraren Euskal Agentzia nabarmentzen da—. Egungo gastuaren % 12 inguru Europako Batzordeak finantzatu zuen zenbait funts eta tresnaren bidez.

Ahalegin ekonomikorik handiena lotzen da ur-habitat kontinentaletako (ibaietako eta lakuetak) kudeaketa- eta monitorizazio-jardunekin. Gero, basoetako eta beste zuhaitz-formazioetako kudeaketa- eta monitorizazio-jardunak datoz.

Euskal Autonomia Erkidegoko zergadunek Euskadiko Natura 2000 Sarearen kudeaketan egin zuten ahalegina, urtean, 17-18 miloi eurokoa izan zen, gutxi gorabehera. Kalkulatzen da Natura 2000 Sareak Europar Batasunean, urtean, 200.000 eta 300.000 milioi euro arteko inpaktu ekonomikoa izan zuela, eta 12 miloi lanpostu mantendu zituela. Inpaktu ekonomiko hori honako alderdi hauen inguruko etekinekin, edo gastu txikiagoekin, lotzen da: karbonoa biltegitratzearekin, hondamendi naturalak arintzearekin, elikadura-segurtasuna areagotzearekin, jolas- eta turismo-zerbitzuen hornikuntzarekin, uraren ekarpenarekin eta kudeaketarekin, arrantza-tokiak mantentzearekin eta lehengoratzekoarekin, osasun publikoko hobekuntzekin, eta hezkuntzaren, ikerketaren eta berrikuntzaren arloko zerbitzuekin.

Zenbateko horiek Euskal Autonomia Erkidegora ekarrita, ikus daiteke Natura 2000 Sarearen inpaktu ekonomikoa urtean 260 eta 390 miloi euro artekoa litzatekeela, eta lanaldi osoko 15.000 lanpostu baino gehiago mantentzen lagunduko lukeela.


*Kontserbazioan inbertitzea, itxuraz, negozio ona da
gizartearentzat...*

I. Natura 2000 Sarea Euskadin

A. NATURA 2000 SAREA

Natura 2000 Sarea da Europar Batasuneko herrialdeetan dauden balio ekologiko handiko naturaguneen sarea, eta helburu komuna du: espazio horien biodibertsitatea egoera onean kontserbatzea. Bi motatako espazioek osatzen dute: Kontserbazio Bereziko Eremuek (KBE), [Habitaten Zuzentarauan](#) barnean hartzen diren Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak kontserbatzeko izendatu direnek; eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuek (HBBE), [Hegaztien Zuzentarauak](#) ezarritakoek eta hegazti basatientzat garrantzi berezia duten zona naturalekin lotzen direnek.

Europar Batasuneko naturaren kontserbaziorako tresna nagusia da eta, aldi berean, naturarekin lotura zuzenena duten giza populazioen garapen jasangarria sustatzeko bidea da, betiere ekonomia- eta gizarte-jardueraren eta naturaren arteko oreka sustatuz.




Europako Natura 2000 Sarearen mapa



[Informazio gehiago](#)

B. NATURA 2000 SAREA EUSKADIN

Euskal Autonomia Erkidegoan, 55 espazio sartzen dira Natura 2000 Sarean, guztira lurreko 1.504 kilometro karratuko azalera hartzen dute, hau da, lurraldearen % 20,8 inguru; azalera horri Mundakako itsasadarreko eta Ogoño lurmuturreko itsas guneko 176 kilometro karratu gehitu behar zaizkio. Guztira Kontserbazio Bereziko 47 Eremu, Hegaztientzako Babes Bereziko 4 Eremu eta bi kategoria horietan sartzen diren beste 4 espazio.



Euskal Autonomia Erkidegoko Natura 2000 Sarearen mapa

Zenbait espazio motatan bana daitezke:

Esklusiboki itsastarrak diren gunek

- [Mundakako itsasadarreko eta Ogoño lurmuturreko](#) itsas gunea (HBBE)

Itsasertzeko gunek

- [Jaizkibel](#) (KBE)
- [Ulía](#) (KBE)
- [Iñurritza](#) (KBE)
- [Gaztelugatxe](#) (KBE)
- [Astondoko dunak](#) (KBE)



Estuarioak

- [Txingudi](#) (HBBE)
- [Urdaibaiko itsasadarra](#) (HBBE)
- [Txingudi-Bidasoa](#) (KBE)
- [Urdaibaiko itsasertzak eta padurak](#) (KBE)
- [Oriako itsasadarra](#) (KBE)
- [Urolako itsasadarra](#) (KBE)
- [Barbadungo itsasadarra](#) (KBE)



Barrualdeko hezeguneak

- [Caicedo Yuso eta Arreoko lakua](#) (KBE)
- [Zadorraren sistemako urtegiak](#) (KBE)
- [Guardiako aintzirak](#) (KBE)
- [Salburua](#) (KBE/HBBE)



Ibaiak

- [Arakil](#) (KBE)
- [Barrundia](#) (KBE)
- [Ega-Berron](#) (KBE)
- [Zadorra](#) (KBE)
- [Baia](#) (KBE)
- [Ihuda](#) (KBE)
- [Omecillo-Tumecillo](#) (KBE)
- [Ebro](#) (KBE)
- [Urdaibaiko ibai-sarea](#) (ZEC)
- [Lea](#) (KBE)
- [Artibai](#) (KBE)
- [Oria Garaia](#) (KBE)
- [Araxes](#) (KBE)
- [Leitzarain](#) (KBE)
- [Urumea](#) (KBE)



Baso mota berezi batzuetako gune bereizgarriak

- [Arno](#) (KBE)
- [Urdaibaiko artadi kantauriarrak](#) (KBE)
- [Garate-Santa Barbara](#) (KBE)
- [Arabako Lautadako irla-hariztiak](#) (KBE)
- [Urkabustaizko irla-hariztiak](#) (KBE)



Gune menditsuak edo erdi-mailako mendiak

- [Garobel mendilerroa](#) (HBBE)
- [Entzia](#) (KBE)
- [Gasteizko Mendi garaiak](#) (KBE)
- [Aldaiako mendiak](#) (KBE)
- [Izki](#) (KBE/HBBE)
- [Arabako hegoaldeko mendilerroak](#) (KBE/HBBE)
- [Valderejo-Sobron-Arcenako mendilerroa](#) (KBE/HBBE)
- [Arkamu-Gibijo-Arrastaria](#) (KBE)
- [Gorbeia](#) (KBE)
- [Armañon](#) (KBE)
- [Ordunte](#) (KBE)
- [Urkiola](#) (KBE)
- [Aiako Harria](#) (KBE)
- [Pagoeta](#) (KBE)
- [Hernio-Gazume](#) (KBE)
- [Izarraitz](#) (KBE)
- [Aralar](#) (KBE)
- [Aizkorri-Aratz](#) (KBE)



C. NATURA 2000 SAREAREN KUDEAKETA

Europar Batasuneko Estatuak arduratuko dira, zuzenean, Natura 2000 Sarearen kudeaketaz; nolahi ere, Europako Batzordeak garrantzi handiko zeregina du Europar Batasuneko estatu bakoitzak prestatutako Batasunaren Intereseko Lekuen proposamenak balidatzeko garaian (KBE izendatu aurreko urratsa). Hartara, Europako Batzordearen segidako erabakien bidez finkatu ziren eskualde

biogeografikoen mailako Batasunaren Intereseko Lekuen zerrendak. Euskadiren kasuan, prozesu hori 2004. eta 2006. urteen artean izan zen.

Gainera, Europako Batzordeak garrantzi handiko zeregina betetzen du Natura 2000 Sareko espazioen kudeaketa-tresnen balidazioan eta Habitaten Zuzentarauaren eta Hegaztien Zuzentarauaren aplikazioaren jarraipenean, baita Natura 2000 Sarea finantza dezaketen finantza-tresnen (funtzen) ezarpenean, jarraipenean eta kontrolean ere.

Bestalde, Estatu kide bakoitza arduratuko da beharrezko kontserbazio-ekintzak finkatzeaz, habitat naturalen eta funtsezko espezieen habitaten narriadura saihesteko neurriak ezartzeaz eta Natura 2000 Sarean eragina izan dezaketen planak eta proiektuak ebaluatzeaz eta ez onartzeaz, baldin eta ondorio negatiboak badituzte kontserbazio-helburuen gainean. Era berean, Natura 2000 Sarearekin lotzen diren alderdi guztietan, Estatu kideak dira Europar Batasunarekiko solaskideak.

Europar Batasunaren aurrean, Estatuak da Sarearen kudeaketa zuzenaren, kontserbazioaren eta, behar izanez gero, lehengoratzearen arduradun bakarra. Gainera, Natura 2000 Sarearen izendapenerako, kontserbaziorako, administraziorako eta finantzaketarako garrantzizkoak diren alderdietan autonomia-erkidegoen arteko koordinazioaz arduratzen da.

Haatik, Estatuaren administrazio-banaketaren ondorioz, autonomia-erkidegoek dute lurraldea eta, hortaz, Natura 2000 Sarea kudeatzeko eskumena eta erantzukizuna. Autonomia-erkidegoak arduratuko dira kudeaketa-tresnak idazteaz, adostez eta gauzatzeaz. Ez da hala gertatuko lurreko espazio batekin jarraitutasun ekologikorik ez duten itsas espazioen kasuan; espazio horietan Estatuaren Administrazio Orokorrak (EAO) du eskumena.


Euskal Autonomia Erkidegoan, gainera, Foru Aldundiek ere esku hartzen dute; izatez, Foru Aldundiek dute Natura 2000 Sareko espazioen kudeaketaren arloko eskumena. Azkenik, zenbait organismo eskudunek ere esku hartzen dute Natura 2000 Sarearekin lotura duten alderdi batzuetan.

ESTATUA	EUSKO JAURLARITZA	FORU ALDUNDIAK	BESTE ERAKUNDE BATZUK
Estatuaren eskumeneko Natura 2000 Sareko lekuak izendatzea eta kudeatzea eta horien kontserbazioa bermatzea.	EAEko Batasunaren Garrantzizko Lekuen proposamenak egitea. Kudeaketa-tresnak prestatzea, barnean hartuta espazioaren mugaketa, helburuak, kontserbazio-arauak eta jarraipen-programa.	Natura 2000 Sareko espazioen kudeaketa: kudeaketa-jarraibideen onarpena, kudeaketa-neurri egokiak barne.	Ur (URA), kosta (EAO) eta beste arlo batzuetan eskumena duten beste zenbait erakunde. Organismo eskudunen aurrekontuekin eta haiek agindutako ekintzak betetzen dituzten elkarte publiko instrumentalak (IHOBE, HAZI)

D. KUDEAKETA-TRESNAK ETA -NEURRIAK

Habitaten Zuzentzarauaren arabera eta [Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Legearen](#) arabera, Eusko Jaurlaritzak, EAEko KBEen eta HBBEen deklarazio-Dekretuetan, finkatu zituen habitat naturalen eta eremu horietako espezieen eskakizun ekologikoei erantzuteko beharrezkoak diren kontserbazio-neurriak. [Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen](#) arabera, deklarazio-Dekretuek honako edukia dute:

- Eusko Jaurlaritzak KBEa edo Hegaztientzako BBEa kontserbatzeko landutako arauak —dagokien espazioa mugatzen duen kartografiarekin batera, Batasunaren intereseko habitat motekin batera eta deklarazioa justifikatzen duten animalia- eta landare-espezieekin batera—, eremu horien kontserbazio-egoeraren balorazioa, lekuaren kontserbazio-helburuak eta jarraipen-programa.
- Eta deklarazio-dekretuaren eranskin gisa, Lurralde Historikoetako foru-erakundeek onartzen dituzten espazioa kudeatzeko jarraibideak. Kontserbazio-helburuen arabera definitzen diren kudeaketa-jarraibide horiek neurri egokiak barnean hartzen dituzte espazioak kontserbazio-egoera onean mantentzeko, habitat naturalak eta espezieen habitatak honda daitezten saihesteko eta eremu horien izendapena eragin duten espezieengan eragina duten alterazioak saihesteko.



[Natura 2000 sareari buruzko dokumentuak](#)

E. EKOSISTEMA MULTZO NAGUSIAK

Aurrerago aztertuko diren habitatei eta espezie interesdunei, hots, elementu nagusiei Europa mailan eskainiko zaien gastu ekonomikoa errazago kuantifikatzeko helburuarekin, ekosistemen arabera multzokatu dira elementu horiek —hain zuzen ere, EAeko Natura 2000 Sareko espazioak elementu horien kontserbaziorako izendatu ziren—:

E.2.1. Itsasoko eta itsasertzeko urak

Itsasertzeko habitatak dira itsas ingurunearen eta lurreko ingurunearen arteko iragaite-eremua. Horrenbestez, itsaslabarrak, harri-koskorrezko hondartzak, padurak eta gatz-sastrakadiak hartzen dituzte barnean.



E.2.2. Txilardiak eta sastrakadiak

Zuhaixka-eiteko landare-formazioak dira. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, txilardi hezeak eta lehorrak, txilardi kaltzikolak, mendiko ipurudi herrestariak eta bestelako sastrakadi esklerofiloak (ezpaldiak eta sabinadiak) izan daitezke.



E.2.3. Zohikaztegiak, eremu zingiratsuak eta bestelako hezeguneak

Kategoria horretan sartzen dira putzuz betetako lurzoruetan, eremu zingiratsuetan, iturburu-enklabeetan, erreka txikien ertzetan eta basoetako soilguneetan garatzen diren habitatak. Euskal Autonomia Erkidegoan, habitat horien barruan sartzen dira istingak, trabertino-landaredia eta zohikaztegiak.



E.2.4. Belar-formazioak

Habitat horietan espezie nagusiak dira mulu txikiak, belarkarak eta gramineoak. Kategoria horretan sartzen dira belardi menditarrak, belaze hezeak, ihidiak eta abar.



E.2.5. Bestelako agroekosistemak (laboreak barne)

Multzo horretan sartzen dira, besteak beste, “6510 Altitude baxuetako sega-belardi txiroak”. Landazabal atlantikoaren landaredi-paisaiaren bereizgarriak dira, paisaia mota horretako palaxu bizien eta bestelako egitura-elementuen (zuhaitzi, harrizko hesi, eta abarren) bilbearekin. Abeltzaintzarako



interesa duten belardiak dira, eta belardi horiek mantentzeko aldian behin moztu behar dira (normalean gramineoak loratu direnean hasten da) eta neguan ongarritu behar dira, batik bat simaurrarekin edo mindarekin.

E.2.6. Basoak eta baso-azalerak

Kategoria honen barruan baso naturalak eta erdi-naturalak sartzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean ageri dira pagadiak, hariztiak, kareharrizko haitzebakien oinetako baso mistoak, artadiak, erkameztiak, ameztiak, gaztainadiak, ezpaldiak, zohikatz-basoak, haltzadiak eta lizardiak (ibaiertzeko basoak) eta pinudi mediterraneo naturalak.



E.2.7. Harkaitz-habitatak, dunak eta landaredi-estaldura urriko lursailak
 Kategoria honetan habitat multzo heterogeneoa sartzen da, barnean direla harkaiztegiak, hartxingadiak eta kostaldeko duna- eta hareatza-habitatak.



E.2.8. Ur-habitat kontinentalak (ibaiak eta lakuak)
 Barrualdeko ur-ibilguak eta ur geldiak (urtegiak eta lakuak) dira.



E.2.9. Beste batzuk (haitzuloak, eta abar)
 Habitat honetan lurreko haitzuloak sartzen dira, barnean direla espezie kabernikolak hartzeko ahalmena duten lurpeko sistema hidrológicoak —oro har oso espezie espezializatuak eta/edo endemikoak izaten dira—.



F. NATURA 2000 SAREAREN ETEKIN EKONOMIKOAK



Azterketa zientifiko ugari saiatu da Natura 2000 Sareak gizarteari eta ekonomiari, zerbitzu ekosistemikoen bidez, sortzen dizkion etekin ekonomikoak kuantifikatzen. Etekin gehigarriak dira —etorkizuneko belaunaldientzat biodibertsitatea gordetzeari gehitzen zaizkionak edo ekonomian izakin-balio deritzanari gehitzen zaizkionak—.

Oso laburbilduta hauek aipa ditzakegu:

- Karbonoa biltegitzea. Espazio ugari dira karbono-biltegi naturalak (basoak, zona hezeak, zohikaztegiak, belardiak, itsas eremuak...).
- Hondamendi naturalak. Ondo kontserbatuta dauden ekosistemek hondamendiak (uholdeak, lur-irritatzeak, elur-jausiak...) arintzeko

zerbitzuak egiten dituzte, eta askotan gizakiak ezartzen dituen neurriak baino merkeagoak dira.

- Elikadura-segurtasuna. Esate baterako, polinizazio-zerbitzuak, arraza autoktonoak mantentzea, genetika kontserbatzea edo nekazaritza-sektorearen erresilientzia areagotzea.
- Jolas- eta turismo-zerbitzuak. Natura 2000 Sarea tokiko erkidegoetarako baliabide-iturri garrantzitsua da, turismo- eta jolas-zerbitzuen bidetik —diru-sarrera, jarduera eta enplegu moduan—.
- Uraren ekarpena eta kudeaketa. Natura 2000 Sarea lagungarria da ur-ekarpena egiteko zein arazketa naturaleko zerbitzuak egiteko.
- Arrantza-tokiak. Itsasoko Natura 2000 Sareak oso ondorio positiboak ditu askotan gainustiatuta dauden arrantza-tokietan.
- Osasun publikoa. Lagungarria da bizi-kalitatea hobetzeko eta osasun komunitarioko arazoak murrizteko.
- Hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza. Ingurumen-hezkuntzan zein oinarrizko ikerketako eta ikerketa aplikatuko oinarri gisa (farmazia-industriarako, esate baterako).

Kalkulatzen da Natura 2000 Sareak Europar Batasunean, urtean, 200.000 eta 300.000 milioi euro arteko inpaktu ekonomikoa duela, eta 12 miloi lanpostu mantentzen dituela. Zenbateko horiek Euskal Autonomia Erkidegora ekarrita, ikus daiteke Natura 2000 Sarearen inpaktu ekonomikoa urtean 260 eta 390 miloi euro artekoa litzatekeela, eta lanaldi osoko 15.650 lanpostu inguru mantentzen lagunduko lukeela.

[Informazio gehiago.](#)

Onura horien aurrean, berriz, Natura 2000 Sarearen kudeaketaren kostua eta hura Europar Batasunean lehengoratzeko eta hobetzeko neurrien kostua, urtean, 13.200 milioi euro ingurukoa da. Aurreko estrapolazioarekin jarraituta, eta inolako balio zientifikorik gabe, Euskal Autonomia Erkidegoan Natura 2000 Sarearen kostua, urtean, 17,3 milioi euro ingurukoa da.

2. Lehentasuneko Ekintza Esparrua

Lehentasuneko Ekintza Esparrua (LEE, *Prioritised Action Framework, PAF*, ingelesez) urte anitzeko plangintza estrategikoko tresna bat da, eta haren helburua da Natura 2000 Sarea eta haren azpiegitura berdea Europar Batasunean inplementatzeko beharrezkoak diren neurrien ikuspegi osoa eskaintzea eta, horretarako, neurri horietarako finantzaketa-beharrak zehaztea eta dagozkien Europar Batasunaren finantza-programekin lotzea.

Habitaten Zuzentarauaren 8. artikuluko 1. atala da LEEaren oinarri juridikoa. Bidezkoa denean, Estatu kideei eskatzen zaie Batzordeari jakinaraztea zer den beharrezkoa Natura 2000 Sarearen arloko honako betebeharrak hauek betetzeko — Europar Batasunak lagundutako finantzaketari dagokionez—:

- Beharrezkoak diren kontserbazio-neurriak finkatzea eta, hala badagokio, kudeaketa-plan egokiak egitea, ekuetarako espezifikokoak edo beste garapen-plan batzuetan integratutakoak.
- eranskineko habitat natural moten eskakizun ekologikoei eta bertako tokietan agertzen diren II. eranskineko espezieen eskakizun ekologikoei erantzun dieten neurri egokiak finkatzea —arauzkoak, administrazioak edo kontratukoak—.

LEEetan identifikatu beharreko neurriak diseinatuko dira, nagusiki, “habitat naturalak eta Europar Batasunarentzat garrantzizkoak diren espezieak kontserbazio-egoera onean mantentzeko edo lehengoratzeko, betiere baldintza ekonomikoak, sozialak eta kulturalak kontuan izanik, baita eskualdeetako eta tokian tokiko berezitasunak ere”.

Lehentasuneko ekintza esparruek, horrenbestez, oinarritu behar dute Natura 2000 Sarearen lekuetarako ezarritako kontserbazio-neurri espezifikoekin zuzenean lotzen diren finantzaketako beharren eta lehentasunen identifikazioan. Horretan oinarrituta, lortuko dira tokien izendapena eragin duten espezieetarako eta habitat motetarako kontserbazio-helburuak, toki bakoitzekoak (Habitaten Zuzentarauaren 6. artikuluen 1. atalak ezartzen duen bezalaxe). Natura 2000 Sareak Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) ere barnean hartzen dituzenez gero —2009/147/EEE Zuzentarauaren (Europar Batasuneko hegaztien zuzentarauaren) arabera izendatuak—, kontuan izango dira, halaber, HBBEetako hegazti-espezieekin lotzen diren lehentasuneko ekintzak eta finantzaketa-beharrak.

Natura 2000 Sarearen ezarpena finantzatzeko garaian, EBk aurrez dauden EBren funtsak erabiltzen ditu (batez ere Nekazaritza Politika Bateratuatik [NPB] datozen funtsak eta egiturako eta kohesioko funtsak), eta ez du finantza-tresna espezifikorik garatu.

Hortaz, sektoreko finantzaketa-programetan ez dira funts espezifikoak bideratzen Natura 2000 Sareara; alabaina, sarea finantzatzeko aukerak daude Europar Batasuneko bidezko funts guztietan —biodibertsitatea bultzatzearen testuinguruan—. Hala ere, LIFE finantza-tresnaren salbuespena dugu (1993an sortua); programa hori munta txikikoa den arren, Natura 2000 Sareko zenbait ekintzataraz berariaz zuzendutako funtsak ditu.

Lehenengo LEEak 2014-2020 aldirako egin ziren. Nolanahi ere, Europako Kontuen Auzitegiaren iritziz, lortutako emaitzek ez zuten Sarearen kostuen ikuspegi oso fidagarria eskaintzen. [Hemen](#) kontsulta daiteke 2014-2020 aldirako Espainiako Natura 2000 Sareako LEEa.

Hurrengo programazio-aldirako, 2021-2027, Batzordeak beste metodologia bat ezarri du, Natura 2000 Sarearen behar finantzarioaren ikuspegi hobea eta osoagoa lortzeko, baita ere une honetan egiten ari den gastua zenbatesteko.

Europar Batasunaren osotasunerako Lehentasuneko Ekintza Esparrua idazteak sortuko lukeen informazio handia homogeneizatzeko helburuarekin, Batasuneko Hegaztien eta Habitaten Zuzentarauetako adituen taldeak [dokumentu bakarra](#) idatzi zuen, Estatu kide guztientzako esparrua izango dena.



Espainiako Estatuan, autonomia-erkidego bakoitza arduratuko da dagokion LEEa prestatzeaz. Trantsizio Ekologikorako Ministerioa, berriz, arduratuko da autonomia-erkidegoetako LEEak arazteaz eta finkatzeaz eta Estatuako LEEa Europako Batzordeari bidaltzeaz.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza arduratu da Euskadiko LEEa idazteaz.


LEEa prestatzean, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak Natura 2000 Sarean eskumena duten eta/edo jarduten duten beste erakunde batzuei eskatu die informazioa, baina eskatutako informazioa ez da beti jaso. Batik bat aipagarria izan daiteke nekazaritzaren

arloan eskumena duten administrazioetatik informazioa jaso ez izana, arlo horretako Europako funtsak kudeatzen dituzten heinean.

Euskadiko LEEak 2014-2017 aldiko gastuen zenbatespena ez ezik, hurrengo programazio-aldirako, 2021-2027, aurreikuspena ere barnean hartzen du.

Euskadiko LEEaren datuen zati handi bat atera da IHOBE sozietate publikoak egindako “EAEko Natura 2000 Sarearen kostuaren ebaluazio ekonomikoa” dokumentutik.

3. Euskadiko Natura 2000 Sarearen finantzaketa-iturriak



Euskal Autonomia Erkidegoak zenbait finantzaketa-iturri erabiltzen ditu bere Natura 2000 Sarean: Europako funtsak, estatuko funtsak, Eusko Jaurlaritzako funtsak, Foru Aldundietako funtsak eta bestelakoak.

A. EUROPAKO FUNTSAK

Europako Batzordeak, bere aurrekontuen barruan, dituen zenbait tresna eta funts lagungarriak izan daitezke Natura 2000 Sareko tokien eta egitura berdearen kudeaketa-planetan aurreikusten diren neurriak finantzatzeko. Hauek dira tresna eta funts horien arteko nabarmenenak —guztiak Europar Batzordearen eta Estatuaren arteko kudeaketa partekatukoak, LIFE izan ezik—:

A.1. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza (LGENF)

Nekazaritza Politika Bateratua finantzatzeagatik ezaguna da, eta egun indarrean dagoen LGENFren lehentasunen artean hauek daude:

- Ekosistemak leheneratzea, zaintzea eta hobetzea (4L);
- Baliabideen erabileran efizientea den eta klima-aldaketarekiko erresistentea den ekonomia (5L).

Guztira 6 lehentasun ditu, eta horietako 4, gutxienez, Estatu kideek eta haien eskualdeek jorratu beharko dituzte, haien Landa Garapeneko Programak (LGP) prestatzean. Europar Batasunak lehentasunak finkatzen ditu eta Estatuak eta eskualdeak neurriak hautatzen eta lehenesten dituzte haien Landa Garapeneko Programen bitartez.

Funtza honekin Natura 2000 Sarearekin zuzenean lotzen diren neurriak finantzatu daitezke (Natura 2000 Sarean errespetuzkoa den nekazaritza-kudeaketaren ondoriozko ordainketa konpentsatzaileak, biodibertsitatearen gaineko ezagutza hobetzearen ondoriozkoak edo kudeaketa-planak egitearen ondoriozkoak, esate baterako). Era berean, zeharkako neurrien bidez lagun dezake, hala nola produkzio ekologikoari lagunduz edo Natura 2000 Sareko lekuetan ekoiztutako elikagaien markak sortuz.

A.2. Eskualde Garapeneko Europako Funtza (EGEF)

EGEFk helburu sorta zabala du, lan-merkatutik eta enpresetatik hasita, inbertsioetarako laguntzetara, klima-aldaketa tartean.

11 lehenetasun hartzen ditu aintzat, eta horietatik 4k lotura dute, hein batean edo bestean, biodibertsitatearen babesarekin.

Programa Operatiboen (PP.OO.), estatuko eta/edo eskualdekoen bitartez inplementatuko dira, eta biodibertsitatea eta zerbitzu ekosistemikoak babesteko ekintzak finantza daitezke EGEFren bidez.

A.3. Itsas eta Arrantzako Europako Funtsa (IAEF)

Europar Batasunaren itsas eta arrantzako politiken funtsa da. Natura 2000 Sarearekin lotzen diren bi azpilehentasan barnean hartzen ditu: ur-biodibertsitatea babestekoa eta leheneratzekoa, eta ekosistemetakoa (1b; 2c).

Estatu kideen esku dago programa operatiboen bitartez horiek inplementatzea.

Itsas eta Arrantzako Europako Funtsaren bitartez finantza daitezke, esate baterako, Natura 2000 Sareko itsas zonak kudeatzeko, leheneratzeko eta kontrolatzeko ekintzak, eremuen arteko konektagarritasuna hobetzeko ekintzak edo kudeaketa-planetan biltzen diren neurri batzuen garapena.



A.4. Europako Lurralde Lankidetzak (INTERREG)

Eskualde Garapenerako Europako Funtsak finantzatzen duen honako lurralde-lankidetzak hau lurralde-garapen integratuan oinarritzen den eskualde-politikako programa zabala da. Enpleguaren sorrera, lehiakortasuna, hazkunde ekonomikoa, bizi-kalitatearen hobekuntza eta garapen jasangarria bultzatzen ditu, hiru lankidetzak motaren bitartez: mugaz gaindiko lankidetzak, nazioz gaindiko lankidetzak eta eskualde arteko lankidetzak.

Programa Operatiboen (PPOO) bitartez ere inplementatuko dira. Beste kasu batzuetan bezalaxe, Europar Batasunak gaikako helburuak ezartzen ditu, eta kudeaketa-agintaritzek, PPOOen bitartez, egiten dute aukeraketa eta lehenespena (4 helburutan metatu behar da % 80a).

Euskadik kapitulu honetako 4 programa baliatzen ditu:

- **INTERREG A.** Mugaz gaindiko lankidetzak. Espainia – Frantzia – Andorra Lurralde Lankidetzako Programa 2014-2020 ([POCTEFA](#))
- **INTERREG B.** Nazioz gaindiko programa. Bi programen bitartez:
 - [Interreg Sudoe](#)
 - [Interreg Espazio Atlantikoa](#)



- **INTERREG C.** Eskualde arteko lankidetzaz. [Interreg Europe](#) programa

Programa horiek guztiek biodibertsitatea babesteko ildoak dituzte, batzuk besteak baino nabarmenagoak.



A.5. Europako Gizarte Funtsa (EGF)

[Europako Gizarte Funtsa](#) da Europak enplegu-sorrera bultzatzeko duen tresna nagusia, eta lagungarria da pertsonen lanpostu hobek lortzeko. Aldi berean, Europar Batasuneko hiritar guztientzako lan-aukera zuzenagoak bermatzen ditu.



Biodibertsitatea babestearen arloan, funtsak natura-balioekin lotzen diren negozioen garapena eta tokiko enplegu-politikak babes ditzake, baita natura kontserbatzeko eta kudeatzeko erakunde-gaitasunen garapena ere.

A.6. LIFE programa

Ingurumenarekin, naturaren kontserbazioarekin eta klimarekin lotzen diren proiektuak finantzatzen ditu.

Zenbait azpiprograma hartzen ditu barnean, eta naturarena eta biodibertsitatearena da nagusietako bat.



B. ESTATUKO FUNTSAK

Hauen artean barnean hartzen ditugu Trantsizio Ekologikorako Ministerioak Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldean egiten dituen jardunak (Kostaren eta Itsasoaren Jasangarritasuneko Zuzendaritza Nagusia), baita Konfederazio Hidrografikoenak ere (Uraren Zuzendaritza Nagusiari atxikitako organismo autonomoak) —horien eskumen-esparrua Estatuaren esku dago—.

C. ESKUALDEKO FUNTSAK

Eusko Jaurlaritzaren jarduerari dagozkio, eta hauetan biltzen dira:

- Natura-ingurunearen babesa eta ingurumenaren arloko informazioa, parte-hartzea eta prestakuntza, [Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren](#) bitartez (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Sailburuordetza).
- Landa-garapena, [Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako](#)

[Sailburuordetzaren](#) bitartez (Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila).

D. FORU-FUNTSAK

Foru Aldundi bakoitzak behar besteko egitura du natura-ingurunea babestearen eta kudeatzearen arloko eskumena aplikatzeko ([AFA](#), [BFA](#), [GFA](#)) zein Landa Garapeneko Programaren aplikazioaren arloan duen eskumena aplikatzeko ([AFA](#), [BFA](#), [GFA](#)).

E. BESTE ERAKUNDE BATZUETAKO FUNTSAK

Honako hauen gisako erakunde publikoaz ari gara:

- Uraren Euskal Erakundea ([URA](#)), Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikitako erakunde publikoa. Erakunde honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko uraren politika gauzatzea.
- [NEIKER-Tecnalia](#), Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Institutua. Irabazi asmorik gabeko sozietate publiko bat da eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari atxikitzen zaio.
- Haien lurraldearen barruan Natura 2000 Sareko guneak dituzten tamaina handiko tokiko erakunde batzuk. Esate baterako, [Donostiako](#) eta [Vitoria-Gasteizko](#) udalak.

4. Euskadiko Natura 2000 Sarearen finantzaketa eta egungo kostua

Aditzera eman denez, Euskadiko LEEak, 2014-2017 aldian, Natura 2000 Sarean izandako gastuaren zenbatespena hartu du barnean. Hala ere, zenbait kasutan 2014-2020 aldia ere aipatuko dugu, Europako funtsen programazioak atzerapenak izaten baititu, batez ere hasierako faseetan; hori dela eta, ikuspegi errealista izango bada, aldiaren osotasuna hartu beharko da aintzat (aurreikusitako gastua), eta ez soilik egungoa (egindako gastua). Ikuspegi hori gabe, datuak nabarmen gutxietsita daude, Europako Batzordearen aurrekontuetatik egindako finantzaketari dagokionez.

Oso antzekoak dira, batetik, Natura 2000 Sarearekin lotzen diren kostu motak eta, bestetik, espazio babestuen sare bat ezartzeko eta kudeatzeko beharrezkoak diren kostu motak.

Bibliografia ugaria da, baina partziala, eta zuzeneko kostuak eta zeharkako kostuak bereizi ohi ditu. Zuzeneko kostuak dira Natura 2000 Sarea ezartzeaz eta kudeatzeaz arduratzen diren administrazioek zuzenean eusten dituzten kostuak —Espainiako Estatuaren kasuan, autonomia-erkidegoak arduratzen dira Sarea ezartzeaz eta kudeatzeaz, eta EAeren kasuan Eusko Jaurlaritzari (ezarpena) eta Foru Aldundiei (kudeaketa) dagokie—. Zeharkako kostuak dira ezarpenean eta kudeaketan inplikatura ez dauden beste agente batzuek (beste administrazio batzuek, jabeek, produktoreek...) eusten dituzten kostuak. Zeharkako kostuen gastu kategoriak nahiko definituta daude, baina zeharkakoetan ez dago adostasunik.

Zuzeneko kostuei dagokienez, Habitaten Zuzentarauaren 8. artikuluko adituen lantaldeak, 2002. urtean, Natura 2000 Sarearekin lotzen diren jardura mota batzuk ezarri zituen, eta horien kostuak Batzordearen laguntzarekin finantza daitezke. Lantaldeak lau multzo bereizten zituen:

- Aurredeklarazioko fasea.
- Kudeaketaren eta administrazioaren plangintza.
- Ohiko kudeaketaren jardunak eta pizgarriak.
- Aldian behingo kapital-inbertsioak (barnean direla zeharkako kostuak, lortu gabeko irabazi gisa).

Europako Kontuen Auzitegiak fiskalizazioaren emaitzei buruz egindako [Txosten Bereziak](#) aditzera ematen duenez, ez dago Sarearen kostuei buruzko informazio fidagarriarik (Europa mailan) eta funtsen esleipena osatu gabe zegoen —2007-2013 aldiaren egindakoa zein 2014-2020 aldirako programatua—; gainera, adierazi zuen Europako Batzordeak ezin izan dituela gabezia horiek ebatzi.

Esan daiteke kostuen balorazioa zeregin konplexua dela eta kasuz kasu aztertu behar dela, azken kostuak espazioen kontserbazio-egoeraren eta erabiltzen den estrategiaren guztiz mende baitaude, baita informazioaren eskuragarritasunaren mende ere; izatez, batetik, erakunde askok jarduten dute, modu batean edo bestean, Natura 2000 Sarearen kudeaketan eta, bestetik, ez da erraza gastupartida jakin batzuk Natura 2000 Sareari esleitzea. Askotan, “adituaren irizpidea” izenekoa erabili izan da, eta horrek subjektibotasun handia gehitzen die zenbakiei.

EAEko LEEaren kasuan, zuzeneko kostuak soilik hartu dira aintzat. Abiapuntutzat hartzen da espazio bat Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeak ekarriko duela lekuaren kontserbaziorako helburuak ezartzea, espazio horretako kudeaketa-giltzarriak identifikatzea eta helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren neurriak onartzea. Funtsean, kudeaketa-arau eta -jardun zehatzak izaten dira, eta horiek gauzatzeko beharrezkoa den inbertsioaren edo gastuaren kostua zenbatetsi beharko da. Horrenbestez, aditzera eman beharko dugu Natura 2000 Sarean egindako gastutzat edo inbertsioztat jo daitekeela lekuaren kontserbazio-helburuak lortzen laguntzen duen gastua edo inbertsioa —Natura 2000 Sareko espazioak izendatzeko dekretuetan ezartzen dira helburu horiek—.



LEEaren egiturari jarraituz, hau da, egungo aldian, EAEko Natura 2000 Sarearen finantzaketa:

A. EUROPAKO FUNTSAK

A.1. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza (LGENF)

[EAEko Landa Garapenerako Programa Euskadi 2015-2020](#) (LGP) programa Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako Zuzendaritzak landu zuen. Guztira 292 milioi euroko gastua hartzen du aintzat aldi osorako, eta zenbateko horretatik 87,1 milioi Europar Batasunak LGENFren bidez egiten duen finantzaketari dagozkio.

Ekonomiaren arloko neurririk garrantzitsuenak alderdi hauekin lotzen dira: nekazaritza-ustiapenen ta enpresen inbertsioetarako laguntzekin; baso-sartzearekin eta baso-azalerak sortzearekin; natura-mugak dituzten landa-zonetarako laguntzekin; eta LEADER ardatzarekin.

Natura 2000 Sareari dagokionez, EAEko LGPren barruan biodibertsitatearen kontserbazioan eragina duten zenbait neurri eta azpineurri dago, baina horietako bakar bat ere ez da xede horretara osorik bideratzen.

2014-2020 aldirako, LEEan kalkulatu da 7.253.110 € esleituko zaizkiola EAEko Natura 2000 Sarearen babesari eta kudeaketari. 2017ko abenduaren 31n, jada 1.422.409 euro inbertitu dira.



[Informazio gehiago](#)

A.2. Eskualde Garapeneko Europako Funtsa (EGEF)

[Euskadiko EGEF 2014-2020 Programa Operatiboa](#) Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren erantzukizuna da. 352,9 milioi euroko gastua hartzen du aintzat, eta horretatik % 50 EGEF bidez finantzatuta dago eta beste % 50 Eusko Jaurlaritzak (% 70) eta Foru Aldundiek (% 30) finantzatzen dute.

Jardunen % 90 ikerkuntzan, berrikuntzan, enpresa txiki eta ertainetan, IKTetan eta karbono gutxiko ekonomian oinarritzen dira. Ingurumenaren kontserbazioari eta babesari eta baliabideen erabilera efizienteari baliabideen % 4,7 esleitzen zaie.

Biodibertsitatearen kudeaketa eta kontserbazioa finantzatzeko balizko bi neurrietatik, Programa Operatiboak bat soilik hartzen du aintzat (85a), guztira 10.251.300 €-ko zuzkidura duena 2014-2020 aldirako. 2017ko abenduaren 31n, gastu ziurtatua zero eurokoa zen.



[Informazio gehiago](#)

A.3. Itsas eta Arrantzako Europako Funtsa (IAEF)

[Itsas eta Arrantzako Europako Funtsaren Espainiarako Programa Operatiboa](#) Gobernu Zentralaren Arrantza Idazkaritza Nagusiaren erantzukizuna da, baina eraginpean dauden autonomia-erkidegoek ere laguntzen dute programa operatiboa idazten.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eta [Itsas Garapen Elkarte](#) (FLAG) Toki Ekintzako Taldearen arteko Hitzarmenaren bidez artikulatzen da —2017ko urtarrilaren 1ean sinatu zen hitzarmena—. Talde horrek, aurrez, [Toki Garapeneko Estrategia](#) bat garatu zuen.

Natura 2000 Sareari dagokionez, “5. Ardatza. Ingurumena” nabarmentzen da. Barnean hartzen dituen neurrien artean aipa daitezke: “Eremu babestuen azterketak”; “Turismoarekin lotzen diren eremu babestuen sustapena”; “Dibulgazioa”; eta “Hondartzak eta portuak”. 5. Ardatzaren % 30 Natura 2000 Sareari esleitzea zenbatetsi da, hau da, 135.600 €. Zenbateko horretatik, 115.260 € (% 85) Europar Batasunaren aurrekontutik etorriko dira eta 20.340 € (% 15) Eusko Jaurlaritzaren aurrekontutik.

Laguntzen lehen deialdia 2018ko abuztuaren 7an argitaratu zenez gero, 2017ko abenduaren 31n 0 eurokoa zen gauzatutako gastua.

 [Informazio gehiago](#)

A.4. LIFE programa

Enpresa Txiki eta Ertainetarako Agentzia Exekutiboaren ([EASME](#), ingelesezko siglak) programa honen bitartez, Euskadiko onuradun publikoek eta pribatuek ingurumenaren eta ekintzaren arloko jardunak eta proiektuak lagunduta finantza ditzakete, laguntza irekiko eta lehia libreko deialdiei esker.

Euskadin, 2014-2017 aldiko gastuarekin, 17 proiektu garatu dira, eta guztira 6.614.535 €-ko zenbatekoa izan dute; zenbateko horretatik 3.718.578 € LIFE programaren ekarpenak dira.

Programazio-aldi honetan oraindik laguntza-deialdiak geratzen direnez gero (Europar Batasuneko beste funtsetan ez bezala, funts honetan zenbatekoa ez dago aurrez esleituta), ezinezkoa da jakitea Programa honen bitartez mobilizatuko diren funtsen zenbateko osoa.

Euskadi Autonomia Erkidegoan nabarmentzen diren LIFE proiektu batzuk:

[AQUILA a-LIFE](#)



[LIFE baccata](#)



[LIFE Oreka Mendian](#)



[LIFE Irekibai](#)



[LIFE Ordunte jasangarria](#)



[LIFE Tremedal](#)



[LIFE Lutreola Spain](#)



[LIFE Pro-Izki](#)



A.5. Europako Lurralde Lankidetzeta (INTERREG)

Euskal erakundeak 4 programatako onuradun izan daitezke, baina soilik horietako bitan aurkitu dira Natura 2000 Sarearen gainean eragina duten proiektuak.

Nabarmenena da Interreg V-A, Espainia-Frantzia-Andorra. Programa horretan 8 proiektu garatu dira, eta 2014-2017 aldian guztira 2.713.773 €-ko zenbatekoa izan dute. Proiektu horiek 2007-2013 programazio aldikoak (batzuk mugaegunaz gain luzatzen dira) zein egungo aldikoak, 2014-2020 aldikoak, dira.

[Txinbadia](#)



[Ecogyp](#)



[Green](#)



[Habios](#)



Interreg V-C, Interreg Europe, programaren barruan, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak [BID-REX](#) proiektuan hartu zuen parte, eta, 2014 eta 2017 artean, 97.440€-ko gastua izan zuen —zenbateko horretatik % 75 Batasunaren kutxatik dator—.



A.6. Europako bestelako funtsak

Natura 2000 Sarea honako bestelako funts hauen bidez ere finantza daiteke:

- **Kohesio Funtsak.** Funts hauen xedea da desberdintasun sozioekonomikoak murriztea eta garapen jasangarria sustatzea. Haatik, Estaduak ez du mota horretako funtsik jasotzen 2014. urteaz geroztik, Estaduko garapen-maila europako pertsonako batez besteko errentaren % 90etik gorakoa baita.
- **Europako Gizarte Funtsa.** [Europako Gizarte Funtsaren 2014-2020 aldiko Euskadiko Programa Operatiboak](#) ez du aintzat hartzen biodibertsitatearen babesarekin lotzen den jardunik.

Laburbilduta, 2014-2017 aldian, batasunaren funtsetatik EAEko Natura 2000 Sarearekin lotzen diren proiektuetara egindako ekarpena 5.246.283 €-koa izan dela zenbatetsi da, eta horrek euskal funts publikoetatik beste 4.224.072 € mobilizatzea ekarri du (Europako Batzordeak, normalean, finantzatzen laguntzen du, ez du % 100 finantzatzen). Zenbateko hori programazio-aldiaren osotasunera, 2014-2020, eramaten badugu, Europar Batasunaren ekarpena 15.900.649 €-koa izango litzateke eta eskualdeak ia beste horrenbesteko ekarpena egingo luke (15.822.668 €); horrenbestez, EAEko Natura 2000 Sareari erantzuteko zenbateko osoa ia 32 milioi eurokoa izango litzateke.

B. ESTATUKO FUNTSAK

Estatuaren Administrazio Orokorrak (EAO), bere eskumenen barruan, 3.221.365 € inguruko balioa duten inbertsioak egin ditu 2014-2017 aldian. Gehien bat Natura 2000 Sareko kostaldeko espazioak konpontzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko obrak izan dira, eta, hein txikiagoan, Natura 2000 Sareko espazioan zebra-muskuiluaren jarraipenerako eta kontrolerako lanak.



C. ESKUALDEKO FUNTSAK

Eusko Jaurlaritzak bere gastua oinarritu du: Kontserbazio Bereziko Eremuen deklarazioan (Kudeaketa-planen prestaketan), espezieen eta habitaten jarraipenean, beste erakunde batzuentzako kapital-transferentzietan (laguntzak, mandatuak, hitzarmenak), eta Natura 2000 Sareko espazioen gainean zuzenean egindako askotariko jardunetan (batez ere Urdaibain eta Txingudin). 2014-2017 aldirako zenbatetsi den Eusko Jaurlaritzaren gastua 8.512.185 €-koa da, langileen gastua barnean dela.



[Informazio gehiago](#)

D. FORU-FUNTSAK

2014-2017 aldian, hiru Foru Aldundietako gastua 36.609.976 €-koa izan dela zenbatetsi da. Gastu hori dagokie espezieen eta habitaten jarraipenari, Natura 2000 Sareko espazioetan zuzenean egindako jardunei eta espazio horien erabilera publikoaren kudeaketari. Barnean hartzen du lan horietara zuzendutako bere langileen gastuaren zenbatespena.



Informazio gehiago ([AFA](#), [BFA](#), [GFA](#))


E. BESTE ERAKUNDE BATZUETAKO FUNTSAK

Atal honetan barnean hartzen da [URA](#), NEIKER-Teknaliak eta [Donostiako](#) eta [Vitoria-Gasteizko](#) Udalek, batez ere, arlo honetan egindako gastua. Erakunde horiek dagozkien espazioetan askotariko jardunak gauzatu dituzte (tokiko erakundeek), Natura 2000 Sareko espazioetan eragina duten urak saneatzeko eta arazteko obrak eta leheneratzeko lanak egin dituzte (URA), beste erakunde batzuei Sarearekin lotzen diren mandatuak egin dizkiete eta askotariko azterketak eta proiektuak agindu dizkiete (NEIKER-Teknalia) —14.185.967 €-ko zenbatekoa izan dute 2014-2017 lau urtekoan—. URA agentzia da gastu gehien egin duen erakundea (8.649.667 €).

Laburbilduta, zenbatetsi da euskal administrazioek urtean 16 milioi euro inguruko gastua egin dutela Natura 2000 Sarean, betiere Batasunaren aurrekontuetatik datozen ekarpenak kontuan hartu gabe.

BESTE FINANTZAKETA			
	2014-2017	2014-2020	URTEROKO
EJ	8.512.185 €	14.896.324 €	2.128.046 €
AFA	10.462.907 €	18.310.087 €	2.615.727 €
BFA	13.753.800 €	24.069.150 €	3.438.450 €
GFA	12.393.269 €	21.688.221 €	3.098.317 €
URA	8.649.667 €	15.136.917 €	2.162.417 €
EAO	3.221.365 €	5.637.389 €	805.341 €
BESTE ERAKUNDE BATZUK	7.092.557 €	12.411.975 €	1.773.139 €
	64.085.750 €	112.150.063 €	16.021.438 €
EB			2.271.521 €
GUZTIRA			18.292.959 €


Zenbateko horiei Europar Batasuneko zenbait funtsetako partidak gehitzen badizkiegu, urteko gastua urtean 18,3 milioi euro ingurukoa da. 2014-2020 aldirako, Natura 2000 Sarean guztira egindako gastua 128 milioi euro ingurukoa da, eta zenbateko horretatik % 12 (15,9 MM) Batasunaren aurrekontutik dator.



Egungo gastuaren kategoriei dagokienez —ez da Lehentasuneko Ekintza Esparruaren atal bat—, hau da zenbatetsitako kostuaren banaketa:

GASTUAREN KATEGORIA OROKORRA	AZPIKATEGORIAK	GASTU ZENBATETSI (MM €)	GASTUA (OSOAREN %a)
A) LANGILE-GASTUAK	Langile-gastuak, Gizarte Segurantzako kotizazioak, Administrazioako langileen dietak eta kilometroak	23,4	% 18,2
	Langileez bestelako egitura-gastuak	2,1	% 1,6
B) BULEGOKO ETA ADMINISTRAZIOKO GASTUAK	KBEak/HBBEak izendatzeko laguntza teknikoko/aginduetako/mandatuetako gastuak	7,2	% 5,6
	Faunaren, floraren eta habitaten jarraipenaren eta kontserbazio-egoeraren ondoriozko laguntza teknikoko, aginduetako, eta mandatuetako gastuak	15,3	% 11,9
C) PLANAK, ESTRATEGIAK ETA JARRAIBIDEAK PRESTATZEA ETA BERRIKUSTEA. AZTERKETA TEKNIKOAK	Habitatak eta espezieak kudeatzeko, kontserbatzeko eta/edo leheneratzeko neurriak, proiektuen idazketa barne	35,8	% 27,9
	Espezie inbaditzaile exotikoak kontrolatzeko eta borrokatzeko gastuak (inbertsioak, laguntzak, kontrol-sareak...)	4,2	% 3,3
D) HABITATEN ETA ESPEZIEEN KONTSERBAZIO-EGOERA EGOKIA MANTENTZEKO KUDEAKETA-GASTUAK	Sentsibilizazioko/sustapeneko/publizitateko/komunikazioko kanpainak eta dibulgazio-materialak diseinatzeko eta editatzeko gastuak. Prestakuntza	3,2	% 2,5
	Erabilera publikoaren kudeaketa. Erabilera publikorako azpiegituren eta ekipamenduen inbertsioak eta mantentze-lanak	19,0	% 14,8
E) DIBULGAZIOA, SUSTAPENA ETA ERABILERA PUBLIKOA	Lursailen erosketa	1,2	% 0,9
	Akordio boluntarioetarako laguntzak eta bestelako konpentsazioko diru-laguntzak, lurraldearen zaintza barnean dela	17,1	% 13,3
F) LURSAILEN ETA ESKUBIDEEN EROSKETA			

Egungo gastu orokorra, kategorien arabera



- A. Langile-gastuak
- B. Bulegoko eta administrazioko gastuak
- C. Planak, estrategiak eta jarraibideak prestatzea eta berrikustea
- D. Habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera egokia mantentzeko kudeaketa-neurriak
- E. Dibulgazioa, sustapena eta erabilera publikoa
- F. Lurren eta eskubideen erosketa

5. Euskadiko 2021-2027 aldiko Lehentasuneko Ekintza Esparrua

Euskadiko 2021-2017 aldiko LEEak definitzen ditu, aipatutako aldirako, beharrezkoak diren lehentasun estrategikoak eta kontserbazio-neurriak, kontuan izanik orain arte egindako aurrerapenak, gaur egungo egoera eta lortu beharreko helburuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura 2000 Sareko espazioetarako dauden kudeaketa-tresnen arabera identifikatu dira estrategia eta kontserbazio-neurri horiek. Hartara, lehentasun horiek zuzentzen dira Natura 2000 Sareko espazio horietan agertzen diren eta babestu behar diren espezieen eta habitat moten kontserbazio-premietara (Habitaten Zuzentarauko 6. artikulua 2. atala). Dokumentu teknikoak hobekuntza-arlo batzuk ere identifikatzen ditu.

Lehentasun eta neurri horiek, baita hobetzeko proposamenak ere, honako atal hauen arabera egituratzen dira:

A. NEURRI HORIZONTALAK ETA ADMINISTRAZIO-KOSTUAK, NATURA 2000 SAREARI DAGOKIONEZ

Atal honetan barnean hartzen dira espazio babestuetara zuzentzen diren neurri orokorrak, betiere EAEko Natura 2000 Sarearen funtzionamendurako, ezagutza orokorrerako eta dibulgaziorako beharrezkoak direnak. Kontzeptu hauek bereizten dira:

A.1. Espazioen izendapena eta kudeaketaren plangintza

Gaur egun Natura 2000 Sareko espazio guztiek lege-izendapena dute (izendapen-dekretuak dituzte), baita tokian tokiko kontserbazio-helburu eta -neurri espezifikoak ere. Edonola ere, eta espazio bakoitzaren kudeaketaren plangintzari dagokionez, behar-beharrezkotzat jo da kudeaketa-estrategiak berrikustea eta eguneratzea, eta aztertzea proposatutako neurriek zer mailatan laguntzen duten kontserbazio helburuetan. Era berean, azterketa zientifikoak eta teknikoak behar dira kudeaketaren plangintzarako beharrezkoak diren esparru eta alderdi jakin batzuen gaineko ezagutza osatzeko.

A.2. Espazioen administrazioa eta agente interesdunekiko komunikazioa

Foru Aldundiek —espazio horien kudeaketan eskumena duten organoak diren aldetik— eta beste administrazio batzuek, hala nola uraren arloan eskumena duen administrazioak edo udal batzuek, Natura 2000 Sareko espazioen kudeaketa txertatu dute haien betebeharren artean. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza ahalegin handia egiten ari da [Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemaren](#) eraikuntzan eta elikaduran. Izatez,

informazio-sistema hori funtsezko tresna da natura-ondarearen ezagutza hobetzeko, betiere kontserbaziora, komunikaziora eta interesdunei zuzendutako hedapenera begira.

Baliabideak behar dira espazio horiek kudeatzeko eta administratzeko, zehazki, eta besteak beste, langile- eta administrazio-gastuetarako.



Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemaren web-orriaren irudia

A.3. Jarraipena eta informazioa

Natura 2000 Sareko espazioen jarraipen eta monitorizatzeko eraginkorra egin behar da, eta, hortaz, espazio horien ezagutza hobetu behar da. Era berean, espazio horien zaintzarekin lotzen diren neurriak barnean hartu behar dira.

A.4. Ezagutza- eta ikerketa-beharrak

Gaur egun, oraindik estali gabe daude zenbait habitat eta espezie ezagutzeko eta ikertzeko behar guztiak; hartara, Natura 2000 Sareko espazioen oinarriko ezagutzari buruzko azterketa zientifiko gehiago behar dira (inbentarioak, kartografia, kontserbazio-baldintzen ebaluazioa).

A.5. Natura 2000 Sareari buruzko komunikazio- eta kontzientziazio-neurriak, hezkuntza eta bisitarien sarrera

Komunikazio- eta kontzientziazio-programak gabeziak ditu, eta prestakuntza eta hezkuntza-proiektuak gehitzearekin ebatzi beharko dira gabezia horiek. Era berean, gizarteak kudeaketan duen parte-hartzea hobetu behar da. Espazio batzuetarako komunikazio- eta dibulgazio-neurriak inplementatu beharko dira, espazio horien ingurumen-balioak ezagutaraztera begira. Gainera, bisitarienezako sarrera-azpiegiturak hobetu behar dira.



B. TOKIAREKIN LOTZEN DIREN MANTENTZE- ETA LEHENERATZE-NEURRIAK, NATURA 2000 SAREAREN BARRUAN ETA KANPOAN



Bigarren atal honetan kuantifikatzen dira Natura 2000 Sareko espazioen kudeaketan giltzarritzat jotzen diren habitatei eta espezieei zuzendutako neurriak. Neurri horiek espazio horren izendapena eragin duten habitaten eta espezieen kontserbaziora zuzentzen dira, batik bat, eta 9 ekosistema motatan multzokatu dira, betiere [MAES](#) (Ekosistemen eta horien Zerbitzuen Mapaketa eta Ebaluazioa) ekimeneko sailkapenaren arabera.

B.1. Kostaldeko eta itsasoko urak

Identifikatutako presio eta mehatxu nagusien arabera definitzen dira ekosistema horiek hobetzeko proposatutako estrategiak: ekosistemak hertsatzen eta iragazkortzen dituzten garraio-azpiegiturak (errepideak, autobideak, trenbideak); ur-bazterrak naturalizatzea ez ezik, faunaren mugimendua ere eragozten duten babes-azpiegiturak; maren ondoriozko uholdeak eragozten dituzten egitura-elementuak; flora aloktono inbaditzailea; nutrienteen eta ustekabeko isurketen ondoriozko ur-kutsadura; instalazioak; eta aisialdiko jarduera batzuk.

Itsasoko eta kostaldeko ur-habitatetara eta habitat horietako espezieetara zuzendutako neurriak lagungarriak izango dira:

- Estuario-sistemen erregimen hidrológico naturala eta haren dinamika bermatzeko eta mantentzeko.
- Fauna- eta flora-populazioak eta habitatak sistemaren barruan modu

aktiboan kontserbatzeko eta hobe ordezkaturak daudenak babesteko.

- Horien heldutasuna, egituraren konplexutasuna eta biodibertsitatea bultzatzeko.
- Kostaldeko habitat zaugarriak eta habitat horiekin lotzen diren itsas hegaztien eta flora halokasmofitikoaren komunitateak zorrotasunez kontserbatzeko.
- Uren kalitatea bermatzeko.
- Flora aloktono inbaditzailea ezabatzen eta kontrolatzeko.
- Estuarioetako eta paduretako sistemaren, sistema hori osatzen duten habitaten mosaikoaren eta bertako fauna- eta flora-populazioen funtzionaltasun osoa mantentzeko eta gordetzeko.



B.2. Txilardiak eta sastrakadiak

Ekosistema horien presio eta mehatxu nagusiak izan daitezke: gehiegizko abeltzaintza edo abeltzaintza uztea; sastrakak kontrolik gabe kentzea; ongarrien, lur-medegarrien eta herbiziden gehiegizko erabilera; suaren erabilera; baso-plantazioek azalera okupatzea; lur orotako ibilgailuen zirkulazioa; enklabe batzuetan bide-sareen dentsifikazioa...

Sastrakadi eta txilardi habitat mota desberdinetarako eta horiekin lotzen diren espezieetarako neurrien inplementazio osoa lagungarria izango da:

Egungo azalera kontserbatzen eta mantentzen dela bermatzeko.

- Gainazal degradatuen kontserbazio-egoera hobetzeko.
- Habitat horien eta horiekin lotzen diren flora- eta fauna-espezie mehatxatuen kontserbazio-egoera onarekin bateragarria den



abeltzaintza-jarduera sustatzeko.

- Habitat horiekin lotzen diren eta egun ezagutzen diren kontserbazio-interes handieneko anfibio eta narrasti populazioak babesteko.
- Mendi garaietako eta landazabaleko hegazti-fauna babesteko eta horien elikadura-eremuak babesteko eta espezie enblematikoen ugalketa-guneak lehengoratzeko.

B.3. Zohikaztegiak, eremu zingiratsuak eta bestelako hezeguneak

Azpiatal honi dagozkion neurriak barrualdeko ekosistema hezeetara eta ekosistema horietako espezieetara zuzenduko dira.

Ekosistema horiek jasaten dituzten presio eta mehatxu nagusiak honako jarduera hauekin lotzen dira: gehiegizko abeltzaintzarekin, baso-plantazioekin, laboreen lehiarekin, beste landaredi-formazio batzuen lehiarekin, ibilgailuen zirkulazioarekin, dinamika hidrikoaren aldakuntzekin...

Zohikaztegiak eta beste hezegune batzuetako habitatetarako eta habitat horiekin lotzen diren intereseko espezieetarako diseinatutako neurriek helburu hauek dituzte:



- Batasunaren interesa duten eta zona hezeekin lotzen diren habitaten kontserbazio-egoera egokia babestea edo lortzea.
- Habitat horiekin lotzen diren flora-espezie eta fauna-espezie (anfibio) mehatxatuen kontserbazio-egoera hobetzea.

▪ *Cladium mariscus* espezieko zohikaztegi karetsuak modu aktiboan kontserbatzea.

B.4. Belar-formazioak

Ezarri beharreko neurriak zuzentzen dira ekosistema horien gaineko mehatxu eta presio nagusiak murriztera eta bat datoz, oro har, txilardietarako eta bestelako sastrakadietarako identifikatu mehatxuekin eta presioekin: gehiegizko abeltzaintza edo abeltzaintza uztea; sastrakak kontrolik gabe kentzea; ongarrien, lur-medegarrien eta herbiziden gehiegizko erabilera; suaren erabilera; baso-plantazioek azalerak okupatzea; lur orotako ibilgailuen zirkulazioa; enklabe batzuetan bide-sareen dentsifikazioa; edo larreak nekazaritza-labore bihurtzea.

Belar-formazioko habitatetarako eta habitat horiekin lotzen diren espezie interesdunetarako proposamen estrategikoek bermatu beharko dute:

- Egungo azalera kontserbatzea eta gainazal degradatuen kontserbazio-egoera hobetzea.
- Habitaten eta habitat horiekin lotutako flora- eta fauna-espezie mehatxatuen kontserbazio-egoera onarekin bateragarria den abeltzaintza-jarduera garatzea.




- Espezie mehatxatuak dituzten larre hezeen eta esfagnaleen orban kopurua gehitzea eta gaur egun ezagutzen diren eta kontserbazio-interes handiena duten populazioak zaintzea.

B.5. Bestelako agroekosistemak (laboreak barne)

Agroekosistemen presio eta mehatxu nagusiak dira: praktika tradizionalei uztea; ongarrien, lur-medegarrien eta herbiziden gehiegizko erabilera; eta lurzorua erabilera-aldaketak.

Ekosistema horietara zuzentzen diren neurriek aukera emango dute:

- Egungo azalera kontserbatzeko.
- Gainazal degradatuen kontserbazio-egoera hobetzeko.
- Habitaten eta horiekin lotzen diren flora- eta fauna-espezie mehatxatuen kontserbazio-egoera onarekin bateragarria den abeltzaintza-jarduera sustatzeko.
- Gaur egun ezagutzen diren eta interes handiena duten flora- eta fauna-populazioak zaintzeko.



B.6. Basoak eta bestelako zuhaitz-formazioak

Baso naturalen presio eta mehatxu nagusiak lotzen dira: azaleraren zatiketarekin eta beste erabilera batzuen aldeko azalera-galerarekin (hariztiak, erkameztiak...); baso-masen kontserbazio-egoera onera zuzentzen ez diren baso-aprobetxamenduekin, heldutasun ekologiko txikiko basoak sortuz; interes ekologikoko zuhaitzak ezabatzearekin; oihanpea ezabatzearekin; abeltzaintzarekin; zuhaitz lepatuak erabiltzeari uztearekin...



Baso-habitatetarako eta horiekin lotzen diren espezie interesdunetarako proposatutako estrategiak lagungarriak izango dira:

- Baso naturalek okupatutako azalera globala gehitzeko.
- Baso-masa autoktonoen naturaltasuna, heldutasuna eta konplexutasun estrukturala hobetzeko.
- Baso-ekosistemekin lotzen diren fauna multzo jakin batzuk kontserbatzeko eta lehengoratzeko (hegazti-fauna, kiropteroak, intsektu saproxilikoak).
- Biodibertsitatearen kontserbazioan lagunduko duten baso-abeltzaintzako eta basogintzako aprobetxamendu-aukerak harmonizatzen eta hobetzeko.

B.7. Harkaitz-habitatak, dunak eta landaredi-estaldura urriko lursailak

Harkaitz-habitategen honako asaldura hauek, besteak beste, jasaten dituzte: erauzpen-jarduerak, kirol-eta aisialdi-jarduerak, kontrolik gabeko abeltzaintza...

Duna-enklabeetako mehatxu nagusienak lotzen dira dunen zatiketarekin eta urritasunarekin, giza presioarekin, instalazioen presentziarekin, kirol-jarduerekin, jolas-jarduerekin, flora aloktonoaren presentziarekin, hareatzak makineriaren bidez mantentzeko jarduerekin...



Neurriak zuzenduko dira:

- Harkaitzetako fauna- eta flora-espezie mehatxatuen populazioak

bideragarri mantentzera.

- Harkaitz-habitaten baldintzak hobetzera eta, hartara, harkaitzetako espezieen harrera-ahalmena hobetzera.
- Harkaitz-habitaten kontserbaziora eta mehatxu-faktoreen kontrolera.
- Harkaitzetako hegaztien kontserbaziora, habiak egiteko guneen babes zorrotzaren bidez, eta lapiazetako, hartxingadietako, harkaitzetako eta megaforbioetako berezko flora mehatxatua babestera.
- Harkaitz-habitatekin lotzen diren flora-espezietarako banaketa-eremua mantentzera.
- Fauna- eta flora-populazioak eta habitatak duna-sistemaren barruan modu aktiboan kontserbatzera eta hobe ordezkatuta daudenak babestera.
- Duna-sistemaren heldutasuna, egitura-konplexutasuna eta biodibertsitatea sustatzera.
- Giza maiztasuna eta sistemarekiko irisgarritasuna kontrolatzera.

B.8. Ur-habitat kontinentalak (ibaiak eta lakuak)

Ur-habitat kontinentalek eta habitat horiekin lotzen diren espezieek jasaten dituzten presio eta mehatxu nagusiak dira: uraren kutsadura, ibilguen aldakuntza morfologikoak, funtzionamendu hidrokologikoen aldaketa, flora- eta fauna-espezie exotiko inbaditzaileak, ur-bazterreko landarediaren konposizioaren eta egituraren aldakuntza...



Proposatutako proposamenen helburua da:

- Ibaien eta erreken eta horien flora eta fauna espezie mehatxuen kontserbazioa bermatzea.
- Uraren kalitatea eta ibaien egoera ekologikoa hobetzea.
- Ibaietako ur-bazterren konektagarritasuna bermatuko duen korridore ekologiko jarraitua kontserbatzea eta leheneratzea, faunaren joan-etorriak errazteko. Ur-korridorean oztopoak ezabatzea.
- Ibai-ibilguetako emari naturalen erregimena bermatzea.
- Fauna mehatxatuko populazio bideragarrien presentzia erraztea, ibai-habitaten harrera-ahalmenaren arabera.
- Habitat naturalek okupatutako azalera globala gehitzea.
- Lakuetak eta aintziretako ur gezako habitaten ahalmen ekologikoa leheneratzea, landaredi-orkak barne.
- Habitat halofiloen kontserbazio-egoera ona lortzea.

B.9. Beste batzuk (haitzuloak, eta abar)

Aisialdi-jarduerak eta bandalismoa dira ekosistema honen presio eta mehatxu nagusiak. Neurriak zuzenduko dira:

- Haitzuloak eta kiropteroen babeslekuak behar bezala babestera eta, horretarako, asaldu-faktoreak ezabatzen edo kontrolatzen.
- Haitzuloetako kiroptero-populazioen presentzia ziurtatzen eta bideragarritasuna bermatzen.



C. EKOSISTEMA ETA HABITAT ESPEZIFIKOekin LOTZEN EZ DIREN ESPEZIEENTZAKO NEURRI GEHIGARRI ESPEZIFIKOAK

C.1. Beste atal batzuetan barnean hartzen ez diren espezieentzako eta programetarako neurri espezifikoak

Atal honetan barnean hartzen dira azaldutako ekosistemen sailkapenarekin lotzen ez diren espezieentzako neurriak. Habitaten Zuzentarauko IV. eranskineko espezieak dira, baita ekosistema multzo jakin batek okupatutako lurraldea baino lurralde zabalagoa hartzen duen edozein neurri horizontal ere.




C.2. Espezie babestuek eragindako kalteak saihestea, arintzea edo konpentsatzea

Epigrafe hau dagokie hegaztien eta habitaten zuzentarauek babestutako espezieek eragindako kalteak saihesteko, arintzeko eta konpontzeko neurriei.



D. EMAITZEN LABURPENA

2021-2027 aldian, Euskal Autonomia Erkidegoan Natura 2000 Sarea finantzatzeko beharrezkoak diren 2.541 estrategia eta neurri identifikatu dira. Aldi horretarako



gastu totala 119.312.316 €-koa da (egungo euroa). Era berean, Euskal Autonomia Erkidegorako zenbatekoa bana daiteke funtzionamenduko urteko kostuetan (13.245.606 €) eta kostu puntual ez errepikarietan (3.799.022 €). Lurralde Historikoen araberrako gastuen kuantifikazioari dagokionez, Arabak du 2021-2027 aldirako gastu-zenbatekorik handiena.

Lehentasuneko Ekintza Esparruan, 2021-2027 aldirako, aurkezten den finantzaketa-premien eta lehentasun-neurrien sailkapenaren arabera, Natura 2000 Sarearekin lotzen diren neurri horizontalak eta administrazio-kostuak aldi horretarako aurreikusitako gastu osoaren % 32 dira. Bestalde, Natura 2000 Sareko espazioekin lotzen diren habitatak eta espezieak mantentzeko eta lehengoratzeko neurriak gastu osoaren % 67 dira, eta ekosistema edo habitat espezifikoekin lotzen diren espezieentzako neurri gehigarriak % 1 besterik ez dira.

1.	Neurri horizontalak eta administrazio-kostuak, Natura 2000 Sareari dagokionez	Funtzionamenduko urteko kostuak (euro/urte)	Kostu bakarrak / proiektukoak (euro/urte)
1.1	Espazioen izendapena eta kudeaketaren plangintza	6.647	148.003
1.2	Espazioen administrazioa eta agente interesdunekiko komunikazioa	3.092.402	32.216
1.3	Jarraipena eta informazioa	193.735	112.770
1.4	Ezagutza- eta ikerketa-beharrak	82.561	291.823
1.5	Natura 2000 Sareari buruzko komunikazio- eta kontzientziazio-neurriak, hezkuntza eta bisitarien sarrera	1.134.301	346.862
Guztizko partziala		4.509.646	931.674


2.a	Natura 2000 espazioekin lotzen diren espezieak eta habitatak mantentzeko eta lehengoratzeko neurriak	Funtzionamenduko urteko kostuak (euro/urte)	Kostu bakarrak / proiektukoak (euro/urte)
2.1.a	Itsasoko eta kostaldeko urak	1.377.081	327.646
2.2.a	Txilardiak eta sastrakadiak	37.038	25.536
2.3.a	Zohikaztegiak eta bestelako hezeguneak	179.152	127.677
2.4.a	Belar-formazioak	307.418	137.500
2.5.a	Bestelako agroekosistemak (laboreak barne)	57.151	16.140
2.6.a	Basoak eta bestelako zuhaitz-formazioak	1.848.594	357.862
2.7.a	Harkaitz-habitatak, dunak eta landaredi-estaldura urriko lursailak	372.806	158.956
2.8.a	Ur-habitat kontinentalak (ibaiak eta lakuak)	4.514.915	1.662.801
2.9.a	Beste batzuk (haitzuloak, eta abar)	41.805	54.063
Gutzizko partziala		8.735.960	2.868.181

2.b	Azpiegitura Berdearen neurri gehigarriak, Natura 2000tik haratago (Natura 2000 Sarearen koherentzia are gehiago hobetzen dutenek, eta baita mugaz gaindiko testuinguruan)	Funtzionamenduko urteko kostuak (euro/urte)	Kostu bakarrak / proiektukoak (euro/urte)
2.1.b	Itsasoko eta kostaldeko urak	26.500	3.850
2.2.b	Txilardiak eta sastrakadiak	11.900	3.500
2.3.b	Zohikaztegiak eta bestelako hezeguneak	12.300	500
2.4.b	Belar-formazioak	11.600	400
2.5.b	Bestelako agroekosistemak (laboreak barne)	2.900	2.900
2.6.b	Basoak eta bestelako zuhaitz-formazioak	11.500	1.650
2.7.b	Harkaitz-habitatak, dunak eta landaredi-estaldura urriko lursailak	7.700	1.300
2.8.b	Ur-habitat kontinentalak (ibaiak eta lakuak)	7.500	800
2.9.b	Beste batzuk (haitzuloak, eta abar)	3.300	1.400
Gutzizko partziala		95.000	16.300

3.	Ekosistema eta habitat espezifikoekin lotzen ez diren espezieentzako neurri gehigarri espezifikoak	Funtzionamenduko urteko kostuak (euro/urte)	Kostu bakarrak / proiektukoak (euro/urte)
3.1	Beste atal batzuetan barnean hartzen ez diren espezieentzako neurri eta programa espezifikoak	31.000	11.300
3.2	Espezie babestuek eragindako kalteak saihestea, arintzea edo konpentsatzea	16.000	0
Gutzizko partziala		47.300	11.300


Urtean guztira	13.387.906	3.826.622
Gutzira (2021-2027)		120.501.696

Horrenbestez, nabarmendu behar da gastuaren zenbatekorik handiena bideratzen dela Batasunaren intereseko habitatzen eta espezieen kontserbazio-egoera hobetzeko estrategiak eta neurriak garatzera —aurrez aditzera emandako ekosistema multzoetan taldekatuta—. Atal honetan aditzera eman behar da, aintzat hartutako ekosistema multzoen artean inbertsiorik handiena eskatzen dutela ur-habitat kontinentalen kontserbazio-egoera hobetzera zuzentzen diren neurriek (uren saneamendua eta kalitatea hobetzea; ibai-ibilgua eta ibai-ertzeko basoa lehengoratztea; ibaietako oztopoak eraistea eta, hartara, ibaiaren konektagarritasuna hobetzea; uren eta ur-ekosistemen kalitatearen jarraipena egitea; jabeekin kudeaketa-hitzarmenak egitea...).




Neurri bakoitza jarduera mota jakin baten barruan sartzen da, betiere 2014-2020 aldirako Lehentasuneko Ekintza Esparrua prestatzean erabilitako Natura 2000 Sareko kudeaketa-jardueren zerrendaren arabera —Europako Batzordeak proposatutako 25 jarduera eta Espainiak proposatutako beste 5 jarduera hartzen zituen barnean—.30 jarduera mota horiek 5 gastu kategoriatan multzokatu dira:

- **Espazioen izendapena:** azterketak, baldintzen ebaluazioa, datu-baseen eraikuntza, espazioen identifikaziorako inbentario zientifikoak, espazioetan probak egiteko hasierako proiektuak, eta abar.
- **Kudeaketaren plangintza:** planak, estrategiak eta kudeaketa-eskemak prestatzea eta berrikustea; kudeaketa-kidegoak sortzea; plantillako langileen kostua; eta abar.
- **Habitaten eta espezieen kudeaketa eta monitorizazioa:** intereseko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera hobetzeko edo mantentzeko neurriak; espezie aloktono inbaditzaileen kudeaketa; finken jabeekin egin beharreko kudeaketa-hitzarmenak; monitorizazioa eta ikerketa; eta abar.
- **Inbertsioak:** lursailen erosketa; erabilera-eskubideen ondoriozko konpentsazioak; interpretazio-zentroak eta kudeaketarako bestelako azpiegiturak; eta abar.
- **Lehentasuneko Ekintza Esparrurako definitutako jarduera mota berriak:** kudeaketan parte-hartzearen hobekuntza; zaintza-hitzarmenak; ingurumen-zerbitzuen ondoriozko ordainketa; administrazioen arteko lankidetzak, kudeaketa hobetzeari buruzko informazioa trukatzeko; jardunbide onen erabilera; eta abar.



Era berean, neurri bakoitzari lehentasun-maila bat esleitzen zaio (oso handia, handia eta ertaina):

- Oso lehentasun handikotzat jotzen dira: egoera txarrean dauden habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera lehengoratzeko eta hobetzeko neurriak; lehentasuneko jardun-esparruak zehazteko azterketei eta inbentarioei dagozkien neurriak; administrazioari eta langileei dagozkien gastuak; kudeaketa-kidegoak sortzeko zenbait neurri; eta oinarrizko ezagutzaren arloko neurriak —hala nola monitorizazioko eta ikerketako azterketen arlokoak, habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera ezagutzearen arlokoak, intereseko habitaten kartografia eta inbentarioa egitearen arlokoak eta intereseko espezieen eroldaren eta jarraipenaren arlokoak—. Era berean, oso lehentasun handia izango dute konektagarritasun ekologikoari buruzko neurriek.
- Habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera mantentzeko gainerako neurriak lehentasun handikotzat jotzen dira, baita ere espezie babestuek eragindako kalteak saihestera, arintzera edo konpentsatzera zuzentzen direnak.
- Dibulgazioko eta hezkuntzako eta Natura 2000 Sareko espazioetara bisitariak sartzeko ia neurri guztiak lehentasun handikotzat eta ertainekotzat jotzen dira.



E. KOPURU HORIEK, HANDIAK ALA TXIKIAK DIRA?

Aurreko kopuruak testuinguruan jartzeko, ezinbestekoa da jakitea beste Estatu eta eskualdetakoak. Natura 2000 Sareko gastuen zenbatespena oso aldakorra da Europar Batasunaren barruan zein estatu kideen barruan. 2008an, Europako Batzordeak Europako Natura 2000 Sarearen administrazioaren eta kudeaketaren kostua, urtean, 6.100 milioi eurokoa zela zenbatetsi zuen. Hektareako 63 €/ha-ko kostua zen, eta oso alde handiak zeuden estatu kideen artean, Poloniako 14 €/ha-ko kostutik, Zipreko, Luxenburgoko eta Maltako 600 €/ha-ko kostuetara (lurreko espazioak soilik). 2009. urtean, Birdlife Internationalek Batasunaren osotasunerako urteko 13.200 MM €/urte-ko kostua zenbatetsi zuen, 128 €/ha-ko gutxi gorabehera. Zenbatespen berriagoek ere datu hori abalatzten dute, 120-150 €/ha-ko zenbatekoekin.

Espanian, garai hartako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, 2013an, 89 €/ha-ko zuzeneko kostua zenbatetsi zuen, eta adierazi zuen zenbateko desiragarria 149 €/ha-ko kostua izango litzatekeela. Estaduko LEEuari jarraituz, Espainiaren osotasunerako zenbatetsitako hektareako gastua 46 €/ha-koa da.

Euskadi autonomia-erkidegoen arteko sailkapenaren goialdean dago, 113 €/ha-ko zenbatespenarekin. Beste eskualde batzuetako datuetan oso alde handiak daude.

Autonomi Erkidegoaren izena	N2000S lur-azalera (ha)	N2000S, 2021-2027 finantza-beharrak (€)	N2000S, urteko finantza-beharrak (€)	Urteko kostua azalaren arabera (€/ha/urte)
Kanariak (I)	347.950	908.258.367	129.751.195	372,9
Murtziako Eskualdea (I)	266.890	347.595.996	49.656.571	186,06
Madrilgo Erkidegoa (I)	319.480	302.797.544	43.256.792	135,4
Andaluzia (I)	2.612.680	2.158.354.334	308.336.333	118,02
Euskadi (I)	150.390	119.312.396	17.044.628	113,34
Galizia (I)	355.280	210.191.070	30.027.296	84,52
Errioxa (I)	167.540	95.104.541	13.586.363	81,09
AAEE batez beste, EAO kanpo				68,65
Gaztela-Mantxa (I)	1.837.530	842.445.846	120.349.407	65,5
Balearr Uharteak (I)	115.440	41.166.517	5.880.931	50,94
Aragoi (I)	1.361.300	481.561.171	68.794.453	50,54
Extremadura (I)	1.263.940	370.909.651	52.987.093	41,92
Kantabria (I)	145.800	38.219.713	5.459.959	37,45
Nafarroako Foru Erkidegoa (I)	281.010	68.718.027	9.816.861	34,93
Asturiasko Printzerria (I)	285.650	65.821.896	9.403.128	32,92
Katalunia (I)	982.750	208.735.068	29.819.295	30,34
Valentziako Erkidegoa (I)	879.790	140.032.786	20.004.684	22,74
Gaztela eta Leon (I)	2.465.000	227.438.960	32.491.280	13,18
AAEE GUZTIRA	13.839.100	6.650.062.782	950.008.968	68,65
Estaduko Administrazio Orokorra (I)	530	30.346 (*)	4.335 (*)	8,18
AAEE eta EAO GUZTIRA (I)	13.839.630	6.650.093.128	950.013.303	68,65
Estaduko Administrazio Orokorra (i)	8.155.590	466.956.714 (*)	66.708.102 (*)	8,18
AAEE eta EAO GUZTIRA (I+i)	21.995.220	7.117.049.842	1.016.721.406	46,22
(I): lurreko		(i): itsasoko		
(*) : finantza-beharrak, EAOk N2000Srako (lurreko eta itsasoko) duen guztiraren zenbatetsi proportzionala				